



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko abenduaren 1a

144. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-25/LEY-00009. 2026erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua. Aurkeztutako zuzenketak (2. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-25/LEY-00009. 2026erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 149. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen 2026erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektuaren artikuluei aurkezturiko zuzenketak, eta partzialki argitara daitezen haren partidei aurkeztutako zuzenketak. Proiektu hori 2025eko azaroaren 5eko 130. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, EH BILDU NAFARROA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Artikulu hau aldatzeko zuzenketa:

34. artikulua. Betetzen den lanpostuan aritzeko gaitasun faltaren ondorioz edo lanpostu horretara ez egokitzearen ondorioz gerora sortutako arazoak direla-eta kontratua suntsiarazteko prozedura ebazteko gehieneko epea, arautzen dena 37/2020 Foru Aginduan, apirilaren 8koan, eta haren 18. artikuluan zehazki.

2. paragrafoa aldatzea proposatzen da. Hone la geldituko litzateke testua:

“4 hilabetekoa izanen da betetzen den lanpostuan aritzeko gaitasun faltaren ondorioz edo lanpostu horretara ez egokitzearen ondorioz gerora sortutako arazoak direla-eta kontratua suntsiarazteko prozedura ebazteko gehieneko epea, arautzen dena 37/2020 Foru Aginduan, apirilaren 8koan, Hezkuntzako kontseilariak emanean, Hezkuntza

Departamentuaren zerbitzuan aldi baterako kontratuekin irakasle lanpostuetan aritu nahi duten izangaien zerrendak kudeatzeko arauak onesten ditue-nean, eta haren 18. artikuluan zehazki”.

Zioa: egokiagoa iruditzen zaigu 4 hilabeteko epea horrelako prozedurak ebazteko.

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu hau aldatzeko zuzenketa:

59. artikulua. Funts-mugimendua osasun-zentroetan inbertsioak egitera bideratutako partiden artean.

Zioa: Testu berri bat proposatzen da funts-mugimendu horiek ez dezaten eraginik izan Osasun Departamentuaren Azpiegitura Plana betetzean:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Kudeaketa Ekonomikoaren eta Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzaren titularrak funts-mugimenduak baimendu ahalko ditu osasun-zentroyen eraikuntzarako, mantentze-obretarako eta ekipamenduetarako inbertsio-partiden artean, bai eta xede horietarako gaitu beharrekoen artean ere, nahiz eta ez egon Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eskatu eta arautzen den loturarik, betiere partida horiek 540tik 547ra bitarteko programetan eta 6020, 6057, 6059 eta 7609 kodifikazio ekonomikoetan jasota badaude eta ekitaldiari dagozkion betebeharrak finkatu badira; edonola ere, bermatuko da mugimendu horiek ez dutela Osasun Departamentuaren Azpiegitura Plana betetzea aldatu, atzeratu edo oztopatuko.

3. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Artikulu hau aldatzeko zuzenketa:

81. artikulua. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.M.P. Sozietatearen kapital-handitzea, industriaren eta etxebizitzaren sektoreetarako.

b) apartatuaren barruan, laugarren puntua kentzea. Honako testua du:

“Nafarroako Inbertsio Institutua SLra bideraturik: 15.000.000 euro, tresna bat sor dezan, bitartekoa izanen dena epe luzeko industria inbertsiorako funts bat bideratzeko, eta bultza dezan ekonomiako sektore estrategikoetan partaidetza izatea, zuzeneko inbertsioaren bidez, sozietatearen estatueta jasozen den bezala”.

Zioa: Nafarroako industriaren mesedetan egiten den inbertsio oro Industria Departamentuak berak egin behar du, eta horretarako badauka tresna bat: Nafarroaren Garapen Sozietatea SL

5. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa:

Zortzigarrena.bis xedapen gehigarria

“Lankidetzeta-hitzarmena, Espainiako Gobernuaren Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Trenbide Azpiegituren Administrazioarekin, Nafarroan abiadura handiko trenbide-sarearen garapena bultzatzeko.

Nafarroako Gobernuak, Foru Komunitatearen ordezkari gisa, lankidetzeta-hitzarmen bat sinatuko du 2026an, Garraioetako eta Mugikortasun Jasangarriko Ministerioarekin, Espainiako Gobernuaren ordezkari den heinean, Nafarroan Abiadura Handiko trenbide-sarearen garapena bultzatzeko. Hala, Nafarroako Gobernuak lizitatuko ditu sareko obrak, Estatuak, urtero, dagozkion Estatuko Aurrekontu Orokorretan Nafarroako Foru Komunitatearen esku jartzen dituen baliabideen bidez. Hitzarmen horrek beharrezko obren eta baliabideen egutegi bat ezarri beharko du, 2030ean guztiz amaitzeko moduan”.

Zioa: Beharrezkoa da Nafarroako Gobernuak benetako konpromisoa izatea AHTarekin, epeak zehaztuta, asmo onen adierazpenetik harago joa-

nen dena. Inbertsio horrek trakzio-ahalmen handia du jarduera ekonomikoan, biderkatzailea delako, eta, beraz, enplegua berreskuratzeko eta sortzeko formula bereziki egokia da. Gainera, Nafarroako ekonomiaren lehiakortasunaren etorkizunaren aldeko apustua da, bere ingurune geografiko eta ekonomikoarekin hobeto lotzen baitu lurraldea, eta hori ezinbestekoa baita gure kanpoko sektore erabakigarriako. Era berean, lurraldea egituratzen lagundu dezake, eta konektibitatea hobetu.

6. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Beste azken xedapen bat gehitzeko zuzenketa:

Azken xedapenetan zortzigarrena.bis

Baliorik gabe geratzen da Nafarroako Gobernuaren 2023ko ekainaren 8ko Erabakia, zeinaren bidez Nafarbide enpresa publikoa sortzen baita.

Zioa: Kontuen Ganberak inbertsio publikoko 2.600 milioi legez nahitaezkoak diren kontrolak egin gabe mugitzeari buruz eginiko ohartarazpena betetzea.

Halaber, bat dator Nafarroako Gobernuak Kontu-hartzailetzat eta Ondare Zerbitzuak eginiko txostenekin, ez baitzuten gomendatzen sozietatea sortzea, bai eta edukiera handiko errepedietako bidesariak oro har ezartzea saihesteko xedearekin ere.

7. ZUZENKETA**UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO****TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA**

Beste azken xedapen bat gehitzeko zuzenketa:

Azken xedapenetako seigarrena.bis

Nafarroako Gobernuak kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legean beste xedapen gehigarri bat sartze da.

Aldatu egiten dira Nafarroako Gobernuak kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 3. bis artikuluen 3. eta 4. puntuak, eta idazketa hau izanen dute aurrerantzean:

"3. Aurreko apartatuan araututako prestazioa bateraezina da honako hauekin:

a) Beste edozein lanpostutan aritzeagatiko ordainsariekin, sektore publikokoak izan, edo pribatukoak izan.

b) Edozein lanbide edo merkataritza jardueratik etorritako diru-sarrerekin.

c) Nafarroako Parlamentura edo beste edozein organismo edo erakunde publikotara joateagatiko dietekin.

d) Enpresa publiko edo pribatuen administrazio kontseilueta joateagatiko dietekin.

e) Aurreikuspen sozialeko edozein araubide publikotako erretiro-sariekin.

Aipatutako ordainsariak edo diru-sarrerak txikiagoak badira, urteko zenbaketan, aurreko apartatuan ezarritako prestazio ekonomikoa baino, aldea jasotzeko eskubidea besterik ez dute izanen.

4. Inola ere ez dute aurreko apartatuetan ezarritako prestazioa jasoko administrazio publiko batean edo horien mendeko erakunde autonomo batean lanpostu bat erreserbaturik duten enplegatu publikoek, ez eta kargua utzi ostean aurreikuspen sozialeko edozein araubide publikotatik erretiro-pentsioa jasotzen dutenek ere.

Zioa: Erretiro-egoerara igarotzen diren pertsonentzako kargua uzteagatiko ordainsaria ez da oinarritzen figura horren justifikazioan, horren xedea baita goi-kargu batean egon diren pertsonen goi-kargu bat izan ostean sortzen diren bateraezintasunen ondorioz gero lanpostu batera itzultzeko dituzten zailtasunak konpentsatzea. Gainera, lehen eta bigarren mailetako pentsiodunak sortzen dira.

8. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Beste azken xedapen bat gehitzeko zuzenketa:

Azken xedapenetako bosgarrena.bis

Azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legea aldatzea, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzkoa.

Aldatu egiten dira Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 3.bis artikulua 3. eta 4. puntuak, eta idazketa hau izanen dute aurrerantzean:

"3. Aurreko apartatuan araututako prestazioa bateraezina da honako hauekin:

a) Beste edozein lanpostutan aritzeagatiko ordainsariekin, sektore publikokoak izan, edo pribatukoak izan.

b) Edozein lanbide- edo merkataritza-jardueratik etorritako diru-sarrerekin.

c) Nafarroako Parlamentura edo beste edozein organismo edo erakunde publikotara joateagatiko dietekin.

d) Enpresa publiko edo pribatuen administrazio kontseilueta joateagatiko dietekin.

e) Aurreikuspen sozialeko edozein araubide publikotako erretiro-sariekin.

Aipatutako ordainsariak edo diru-sarrerak txikiagoak badira, urteko zenbaketan, aurreko apartatuan ezarritako prestazio ekonomikoa baino, aldea jasotzeko eskubidea besterik ez dute izanen.

4. Inola ere ez dute aurreko apartatuetan ezarritako prestazioa jasoko administrazio publiko batean edo horien mendeko erakunde autonomo batean lanpostu bat erreserbaturik duten enplegatu publikoek, ez eta kargua utzi ostean aurreikuspen sozialeko edozein araubide publikotatik erretiro-pentsioa jasotzen dutenek ere".

Zioa: karguosteko-ordainsarien xedea da kalte-ordainak eratzea kargu publiko izateak eragiten dituen bateraezintasunengatik, eta, era berean, gizarte-babeseko sistema gisa balio izatea, kontuan hartuta ezin direla langabeziagatiko ordainsari arruntak jaso. Alabaina, erretiro-pentsioak osatzeko karguosteko-ordainsariak ez datoz bat ez xede batekin ez bestearekin, eta, beraz, aukera hori kendu egin beharko litzateke.

9. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, EH BILDU NAFARROA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Beste azken xedapen bat gehitzeko zuzenketa:

Azken xedapenetako hamargarrena.bis

Nafarroako babes zibilari eta larrialdien kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen 55. artikulua 2. puntua aldatzen da, "funtzionarioak" hitzaren ordez "langile finkoak" jarritz. Honela geldituko da testua:

"2. Eritasuna edo istripua dela-eta, bere lanpostuaren eginkizunak betetzeko ezindurik dau-

den su-itzaltze eta salbamendu zerbitzuetako langile finkoak ere bigarren jarduerako lanpostu batean aritzera pasatzen ahalko dira (zerbitzu osagarrietan), eta horrek lanpostu hutsa sortuko du operazio-taldean”.

Zioak: Joan den 2024ko azaroaren 9an argitaratu zen Estatuko Aldizkari Ofizialean 5/2024 Legea, azaroaren 8koa, baso-suhiltzaileei buruzkoa, eta hau dio haren Hirugarren xedapen gehigarriak:

“Bigarren jarduera.

1. Administrazio publiko eskudunek, aplikatzekoa den indarreko araudian jasotakoarekin bat, ezartzen ahalko dute baso-suteak itzaltzeko operatiboen antolaketan, eta zerbitzuaren beharretara egokituta, sor daitezela bigarren jarduera bat egitea ahalbidetzen duten zenbait plaza baso-suhiltzailetzat jota dauden langile publikoentzat, mediku-irizpen bidez aitortuta dutenentzat gutxituta dutela zerbitzu arrunta emateko gaitasuna, ez badaude ezintasun iraunkor osoko, ezintasun iraunkor absolutuko edo baliaezintasun handiko egoeran.

2. Aurreko apartatuan aipatu bezala bigarren jarduerako egoera horretan dauden langileek dagokien baso-suteak itzaltzeko operatibora atxikita jarraituko dute, eta beren egoerara hobeki egokitutako eginkizunak eginen dituzte, beren gaitasun teknikoko mailarako egokiak direnak, dagokion mediku-epaimahaiak egindako ebaluazioaren arabera.

3. Aurreko apartatuan aipatutako langileen ordainsari oinarritutako eta osagarriak haien postura eta eginkizunetara egokituko ditu administrazio publiko bakoitzak, aplikatzekoa den araudiari jarraituz.

4. Administrazio publiko bakoitzak erregelamendu bidez zehaztuko ditu, besteak beste, bigarren jarduerara igarotzeko baldintzak, jatorrizko postura itzultzeko eskakizunak eta bigarren jarduerarako arau- eta antolaketa-sistema, zeina baliatuko baita egoera horretan dagoen pertsona kopurua handiagoa denean bigarren jarduerara esleitutako postuen kopurua baino”.

Nafarroako babes zibilari eta larrialdien kudeaketari buruzko uztailaren 1eko 8/2005 Foru Legearen 55.2 artikuluan arautzen da bigarren jarduera:

“2. Eritasuna edo istripua dela-eta, bere lanpostuaren eginkizunak betetzeko ezindurik dauden su-itzaltze eta salbamendu operatiboetako funtzionarioak ere bigarren jarduerako lanpostu batean aritzera pasatzen ahalko dira (zerbitzu

osagarrietan), eta horrek lanpostu hutsa sortuko du zerbitzu operatiboan”.

Suhiltzaile-laguntzaile peoiek eta suhiltzaile-laguntzaile gidariek osatutako kanpaina-langileen egonkortze-prozesuaren ostean ikusi da langile horien adina 55 urtetik gorakoa dela kasu askotan.

Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua osasun-zaintzako azterketak egiten ari da 55 urtetik gorako baso-langileei, 55 urtetik gorako suhiltzaileen protokoloa aplikatuz”. Horren barruan, esfortzu-proba bat egiten da, osasun kardiobaskularra aztertzeko elementu gisa.

Prozesu hori aplikatzeko arrazoia da adinarekin lotutako osasun-arriskua areagotu egiten dela kolektibo horretan, karga fisiko handiko eta bero eta estresarekiko esposizio handiko lanak egiten dituztelako beren lanean.

55 urtetik gorako baso-suhiltzaile finkoetakoren bati “ez gai” kalifikazioa ateratzen bazaio, horiek ez dute bigarren jarduerarako aukerarik. Gaur egun, birkokatzea izanen litzateke aukera bakarra. Alabaina, benetan, aukera hori ez da bideragarria, administrazioan ez baitago kolektibo hori birkokatzeke balioko lukeen aldizkako lanpostu finkorik, haien ordutegiaren eta deialdiaren iraupenaren berezitasunak direla-eta.

Hori horrela, pertsona horiek suhiltzaile operatibo gisa lan egiten jarraitzen badute, Laneko arriskuen prebentzioari buruzko 21/1995 Legean ezarritakoa urratuko litzateke; zehazki 14. eta 25. artikuluetan ezarritakoa. Honako hau dio 25. artikuluko horrek:

Langileei lanpostu batzuetan ez zaie lanik emango, ezaugarri pertsonalen, egoera biologikoaren edo behar bezala aitortutako desgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenezkoaren ondorioz, langile horiek, osterantzeko langileak nahiz enpresari lotutako beste pertsona batzuk arrisku-egoeran gera daitezkeenean edo, orokorrean, kasuan kasuko lanpostuen betekizun psiko-fisikoekin bat ez datozen egoera iragankorretan daudenean.

Langile horiek lan-istripua izanez gero, erantzukizun administratiboak eta zibilak sortzen ahal lirateke administrazioarentzat, posible izanik prestazio-errekargu bat ordaindu behar izatea, zenbateko handikoak izan ohi direnak; bestalde, erantzukizun penalak ere sortzen ahal lirateke zerbitzuaren arduradunentzat. Horregatik, osasun-arrazoiengatiko bigarren jardueraren bidea gaitu behar da kolektibo horrentzat.

11. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,
GEROA BAI ETA
CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa:

Hamargarrena.bis gehitzeko zuzenketa

Hamargarrena.bis gehitzeko zuzenketa
“Etxebizitza babestuen gehieneko salmenta-prezioak 2026an.

1. Etxebizitza babestuak eta haien eranskinak saltzeko 2026ko gehieneko prezioa zehaztean, ez da aplikatuko Nafarroan etxebizitza izateko esku-bideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 10. artikulua (1.a) eta 1.d) apartatuetan xedatutakoa.

2. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarri 2026an aplikatuko zaien modulu ponderatua 1.648,59 eurokoa izanen da metro koadro erabilgarri bakoitzeko.

3. Nafarroako etxebizitza arloko jarduketa babesgarri 2026an aplikatuko zaien modulu ponderatu gabea 1.582,65 eurokoa izanen da metro koadro erabilgarri bakoitzeko”.

Zioa: etxebizitza babestuei 2026an aplikatuko zaien modulua handitzea proposatzen da, sektorean kostuen igoera nabarmena izan baita 2025ean indarrean zegoen BOEen moduluarekin alderatua. Ildo horretan, beharrezko jotzen dugu egungo ekonomia- eta erakuntza-arloetako errealitatera egokitzeari modulua; sustapenen bideragarritasuna bermatzeko alde batetik, baina etxebizitza babestuen eginkizun sozialari eutsita, era berean.

12. ZUZENKETA**NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA,
EH BILDU NAFARROA, GEROA BAI ETA
CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA
TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

Beste azken xedapen bat gehitzeko zuzenketa:

Azken xedapenetako hamargarrena.bis

“Azken xedapenetan XXXgarrena: Zenbait Fundazioen Zuzendaritza Organoak arautzen dituen otsailaren 17ko 2/2014 Foru Legea aldatzea.

Laugarren xedapen gehigarria gehitzen zaio Zenbait fundazioen zuzendaritza-organoak arautzen dituen otsailaren 17ko 2/2014 Foru Legeari. Hona hemen testua:

“Laugarren xedapen gehigarria. Nafarroako aurrezki-kutxen eraldaketatik sortutako fundazioen xedeetara bideratzea baliabideak.

Foru Lege honetan araututako fundazioei ez zaizkie aplikatuko Nafarroako Fundazioei buruzko ekainaren 30eko 13/2021 Foru Legearen 47. artikuluan ezarritako mugak”.

Zioa: Caja Navarra fundazioa banku-fundazioztat hartua izan zen 2013an eratu zenetik bertatik ia –Caja de Ahorros y MP de Navarra fundazio bihurtzearen ondorioz eratu zen–.

Horren ondorioz, Aurrezki-kutxei eta banku-fundazioei buruzko abenduaren 27ko 26/2013 Legearen aplikazio-eremuan sartuta egon zen 2014tik 2022ra arte. Une horretan, banku-fundazioztat joa izateko eskakizunak betetzeari utzi zion (finantza-erakunde batean –CaixaBank– zuen parte-hartzea jada ez zen iristen legez ezarritako gutxienezkotara).

Lege horrek arautu zituen, indarrean jarri zenetik, entitate horiek, banku-fundazioak, ordura arte ez baitziren existitzen. Fundazio horiek berezitasun bat zuten: jatorria. Aurrezki-kutxen eraldaketatik zetozen, eta kontrol-posizioak zituzten kreditu-erakundeetan, horietan parte-hartze handiak baitzituzten. Hori horrela, haiek arautzen zituen legean, haien gobernuarekin eta administrazioarekin lotutako zenbait alderdi aurreikusten ziren, zeinak fundazio arruntetatik bereiztea baitzekarren.

Desberdintasun horietako bat zen errenta eta diru-sarreraren xedera behartuta zeudela. Fundazio arruntei buruzko legediak, estatuko legearen 27. artikuluan eta foru legearen 47. artikuluan, aurreikusten du fundazio-xedeak gauzatzera bideratu beharko dela, gutxienez, egiten diren ustiapen ekonomikoen eta beste edozein kontzeptutan eskuratzen diren diru-sarreraren emaitzen ehuneko 70, egindako gastuak kenduta emaitza edo diru-sarrera horiek kalkulatzeko; eta, gainerakoa, zuzkidura edo erreserbak areagotzeko erabili behar da, Patronatuaren akordioaren arabera:

Betebehar horrek arrisku handia dakar diru-sarreraren gehienak finantza-ondarearen errendimenduetatik lortzen dituzten fundazioentzat, eta hala-koxeak dira banku-fundazioak; hori gertatzen zaio, gaur egun, Caja Navarra fundazioari. Horregatik, banku-fundazioen legeak hirugarren xedapen gehigarrian aurreikusten du mota horretako entitateak ez direla egonen fundazioen legearen 27. artikuluan ezarritako mugen mende.

Caja Navarra fundazioa banku-fundazioa ez denetik ez zaio aplikatzen babes hori, foru arau batean ere ez baita jasotzen zehaztapen hori,

banku-fundazioen legean legegileak kontuan izan zuena.

Fundazioaren fidantza-ondarea 300 milioi euro ingurukoa da. Ondare horretatik datozen errentagarritasunagatiko diru-sarrerren urteko zifrak, batzuetan, jarduera-gastuaren aurreikuspenak baino askoz ere handiagoak izaten ahal dira. Diru-sarrera horien gehienak, zuhurtziaren eta kudeaketa egokiaren irizpideei jarraituz, errentagarritasuna sortzen jarraitzen duten beste finantza-produktu batzuetan berrinbertitu behar dira. Hala ezartzen du, gainera, entitatearen inbertsio-politikak.

Errenten eta diru-sarrerren jomuga-araua aplikatzeagatik Fundazioak jarduera-gastura bideratu behar baditu bere inbertsioetatik datozen diru-sarrera horiek, bere ondarea murriztua izateko arriskuan jartzen da entitatea, eta, epe luzera, bere jasangarritasuna eta iraunkortasuna galtzeko arriskuan.

Horregatik guztiagatik, iruditzen zaigu gomen-dagarria dela, baita beharrezkoa ere, errenten eta diru-sarrerren jomugako betebeharrak horren mende egon gabe jarraitzea fundazioak, bere ondarea babeste aldera.

Hori gauzatzeko, proposatzen dugu banku-fundazioei buruzko foru legeak jasotzen duen xedapen bera jasotzea; hain zuzen ere, otsailaren 17ko 2/2014 Foru Legeak, zenbait fundazioen zuzendaritza-organoak arautzen dituenak, jasotzen duena. Caja Navarra fundazioari soilik eragiten dion lege bat da, aurrezki-kutxen eraldaketatik sortutako Nafarroako fundazioak baitira aplikazio-eremu subjektiboa.

14. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Beste azken xedapen bat gehitzeko zuzenketa:

Azken xedapenetako seigarrena.bis

Nafarroako Poliziei buruzko azaroaren 19ko 23/2018 Foru Legea aldatzea.

Hamazazpigarren xedapen gehigarriaren bigarren paragrafoa aldatzen da –Nafarroako toki entitateetako polizietako funtzionarioak Nafarroako Foruzaingoan sartzeari. Honela gelditzen da:

Erregelamendu horrek honako alderdiak jaso beharko ditu: pertsona horiek Foruzaingoan sartzeari, edonola ere, boluntarioa izanen da beti, baina jatorri duen udal entitatearen baimena eduki beharko da. Sartze hori eskubide eta betebeharrak

guztiek egingen da; aldeztu aurretik gaintu behar dira beharrezkoak diren gaitzarako probak eta ikastaroak Nafarroako Segurtasun eta Larrialdi Eskolan. Halaber, prozedura horretan parte hartuko dute ordezkariak duten erakunde sindikalek.

Zioa: Kendu egiten da tokiko polizietako funtzionarioak Foruzaingoan sartzeari buruzko eskakizun bat; zehazki, ezartzen duena sartzeko aukera hori baliatzen ahalko dutela, udal agente edo polizien artean, foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean izaera hori dutenek soilik. Eta eskakizuna kentzen da pasabideak aldeztuko eta foruzain kopurua areagotu dadin, horrela polizia integral eta erreferentziakotzat hartua izan dadin, kontuan hartu behar baita, gainera, Nafarroako Gobernuak ez duela bete prozedura hori arautzeko erregelamendua urtebetean taxutzeko betebeharra.

19. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA

CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Beste xedapen gehigarri bat gehitzeko zuzenketa:

Hamargarrena.bis gehitzeko zuzenketa

Titulu berri bat, VII. Titulua, Lankidetzaren publiko-privatuaren araubidea lizentzia eta erantzukizunpeko adierazpena behar dituzten egintzetan izenekoa, gehitzen zaio uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuari, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu batekin onesten duenari. Hona hemen testua:

“VII. TITULUA: LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUAREN ARAUBIDEA LIZENTZIA ETA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN BEHARRA DITUZTEN EGINTZETAN

247. artikulua. Entitate pribatuen lankidetzaren hirigintza-alarreko administrazio-eginkizunetan.

1. Udalek zilegi izanen dute laguntzaile diren hirigintzako entitate pribatuekin lankidetzan betetzea lege honen 190. eta 192. artikuluetan aipatzen diren hirigintza-arloko eginkizunak.

2. Hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzailearen araubide juridikoa eta funtzionamendua kapitulu honetan ezarritakoak izanen dira. Hala ere, hor xedatzen denaren esparruan, udalek zilegi izanen dute beren dermion entitate laguntzaileei aplika-

tzekoa izanen zaien araubide juridikoa garatzea. Hala, zehazten ahalko dute lege honen 190. eta 192. artikuluetan aurreikusitako eginkizunetatik zeintzuk betetzen ahalko dituzten, eta zehazten ahalko dituzte, orobat, entitate laguntzaileen esku-hartzearen norainokoa, haien lanak betetzeko jarraitu beharreko prozedura eta lege honetan ezarritakoa errespetaturik dauzkaten betebeharrak gehigarriak. Gainera, betebeharrak horiei dagokien zeharpen-araubidea osatzen ahalko dute.

Era berean, udalek ezarriko dituzte entitate laguntzaileek kasuko udal-mugarrean jasoko dituzten prezioen gutxieneko eta gehieneko zenbatekoak; eta, betiere, esku hartzen duten hirigintza-zerbitzuei dagokien udal-tasa kenduko da.

248. artikulua. Hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileen kontzeptua eta eginkizunak.

1. Hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileetat hartuko dira beren ardurapean jarduten duten eta lege honetan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten pertsona juridikoak, behar bezala akreditaturik eta Nafarroako Foru Komunitateko hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileen Erregistroan inskribaturik daudenak.

2. Hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileek izaera teknikoa eta berezko nortasun juridikoa izanen dute, eta hurrengo artikuluan jasotzen diren eginkizunak egokiro betetzeko behar dituzten giza baliabideak eta baliabide material eta finantzarioak edukiko dituzte.

3. Hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileek honako eginkizun hauek betetzen laguntzen ahalko dute, hirigintzako erabilera edozein dela-ere:

a) Egiaztapeneko, esku-hartzeko eta kontroleko eginkizunak betetzea hirigintzako lizentziak eta erantzukizunpeko adierazpenak izapidetzeko prozeduretan, zeinak herritarrek eskatuta egiten baitira hirigintzako lizentzien eta erantzukizunpeko adierazpenen egiaztatze-aktak eta adostasun-ziurtagiriak jaulkita.

b) Zoruaren edo zorupearen erabilerari buruzko ekintzak eta eraikuntza-ekintzak egiaztatzea eta ikuskatzea.

249. artikulua. Hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileen araubide juridikoa.

1. Hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileek inpartzialtasunez, konfidentzialtasunez eta independentziaz jardunen dute, eta lehia askeko araubidean eta bateraezintasunen arloko xedapenak errespetatuz beteko dute beren jarduera.

Beren eginkizunak betetzean sortutako kalte eta galeren erantzule izanen dira.

2. Hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileek interesdunak edo udalak eskatuta jardunen dute, haien esku-hartzea ez baita nahitaezkoa. Era berean, Nafarroako Foru Komunitateak eta haren mendeko zuzenbide publikoko entitateek ere eskatzen ahalko dute entitate horiek jardun dezatela.

3. Hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileek ez dute agintaritzaz-izaerarik izanen, eta haien jardunak ezin izanen du eragotzi administrazio publikoen zerbitzu teknikoek berezkoa duten egiaztatze-, ikuskatze- eta kontrol-eginkizuna.

4. Interesdunek beren borondatez erabiltzen ahalko dituzte entitate pribatu laguntzaileek ematen dituzten zerbitzuak, baina horrek ez du ekarriko udalaren aldetik tratamendu berezia jasotzea.

5. Beren jardunean, entitate laguntzaileek egiaztapen-aktak, ziurtagiriak eta txostenak jaulkitzen ahalko dituzte. Udalek administrazio-espeditentari erantsiko dizkiote horiek, eta haien edukia bere eginen dute edo, kasua bada, aurkako jarrera arrazoitua adieraziko dute.

6. Edonola ere, udal-zerbitzuek jaulkitako txostenak gailentzen zaizkio entitate laguntzaileek beren jardunean jaulkitako dokumentazioari.

7. Adostasun-ziurtagirien ondorioak udal-zerbitzu teknikoek jaulkitakoen parekoak izanen dira.

250. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileen erregistroa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileen erregistroa erregistro administratiboa da, izaera publikoa duena, eta lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloko departamentu eskudunaren mende egonen da.

2. Antolamenduaren arloko eskumenak dituen departamentuaren foru agindu baten bidez ezarriko dira hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileen erregistroaren araubide juridikoa, bertan inskribatzeko gutxieneko datuak, inskribatzeko prozedura, inskripzioaren eraginkortasunaren etetea eta erregistroko inskripzioaren desegitea.

251. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileen akreditazioa.

Nafarroako Foru Komunitateko hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileen erregistroan inskribatuak izan ahal izateko, hirigintza-arloko entitate pri-

batu laguntzaileek akreditazio bat eduki beharko dute, ENAC-Akreditazio Entitate Nazionalak jaultakoa, akreditaziorako erakunde nazionala den aldetik. Akreditazio hori UNE-EN ISO/IEC 17020 (A motako entitateak) araua edo hura ordeztzen duena beteta eman beharko da, eta honako baldintza hauek bete beharko dituzte entitateek:

a) Modu baliodunean eratuta egotea, aplikatzea den araudiari jarraikiz.

b) Erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatuta edukitzea, gutxienez 1.000.000 eurokoa, entitatearen eta haren langileen jarduna estaliko duena, entitate laguntzaile gisa dihardutenekoa. Zenbateko horrek ez du erantzukizuna mugatuko, eta eguneratzen ahalko da lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloko eskumenak dituen departamentuaren agindu bidez.

c) Entitateak Nafarroako Foru Komunitatean betetzen dituen eginkizunetara atxikita edukitzea une oro honako ezaugarri hauek dituzten langileak:

1. Gutxienez arkitekto edo ingeniari bat, gutxienez hamar urteko lan-esperientzia egiaztatuta duena honako eginkizun hauetako bakoitzean:

1. Eraikuntza-obretarako proiektuen idazketa, zuzendaritza eta interpretazioa.

2. Hirigintza-planeamenduko eta hirigintza-kudeaketarako tresnen idazketa, interpretazioa eta aplikazioa.

2. Gutxienez abokatu edo ingeniari bat, gutxienez hamar urteko lan-esperientzia egiaztatuta duena honako eginkizun hauetako bakoitzean:

1. Aholkularitza juridikoa hirigintzako planeamendu, kudeaketa eta diziplinaren arloan.

2. Aholkularitza juridiko-teknikoa eraikuntza, eraikingintza eta urbanizazio-lanen arloan.

252. artikulua. Hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileen betebeharrak.

Hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileek betebeharrak hauek konplitu beharko dituzte:

a) Izena emateko bidea eman zuten baldintzak betetzea eta indarrean mantentzea, eta horien aldaketa ororen berri ematea izena emateko baimena eman zuen organoari.

b) Behar bezala betetzea aztertze-, egiaztatze-, ikuskatze- edo kontrol-eginkizunak, jasotako akreditazio-ziurtagiriarekin bat.

c) Beren eginkizunetan jasotzen duten informazioaren konfidentzialtasuna bermatzea eta izaera

pertsonaleko datuen babesaren arloan aplikatzea den araudia betetzea.

d) Aztertze-, egiaztatze-, ikuskatze- eta kontrol-eginkizunak betetzearekin zerikusia duten jarduketak ez azpikontratatzeko, akreditazioan aurreikusitako moduan.

e) Egiaztatze-akten, ziurtagiriaren eta txostenen kopia ematea, bai eta beren eginkizunak betetzean administrazioek eskatzen dieten beste edozein informazio ere.

f) Prozedura berariazkoak edukitzea bezeroek beren jarduerengatik aurkeztutako erreklamazioak tratatzeko, eta horiekin zerikusia duen jarduketa ororen artxibo bat edukitzea.

g) Jarduketaren tarifak zehaztea, eta urtero ezartzea beren eginkizunak betetzeagatik jaso beharreko prezioak. Prezio horiek Erregistroaren arduraren organoari jakinaraziko zaizkio indarrean egon diren urte naturala hasi baino bi hilabete lehenago gutxienez, hark argitara eman ditzan.

h) Zazpi urtez gordetzea izapidetutako espedienteak, bai eta jaultakotako egiaztatze-aktak, ziurtagiriak eta txostenak ere.

i) Beren instalazioetan eta bulegoetan sartzeko baimena ematea akreditazio-entitateari eta Nafarroako Foru Komunitateko langile eskudunei, bai eta, kasua bada, beren eginkizunak betetzen dituzten udaletakoei ere.

j) Dituzten aztertze-, egiaztatze- eta kontrol-eginkizunetara eta entitate pribatu laguntzaile gisa ematen dituzten zerbitzuei buruzko informazio zuzena ematea herritarrei oro har eta, bereziki, beren bezeroei. Zehazki, entitate laguntzaileek modu indibidualizatuan emanen diete honako gai hauei buruzko informazioa interesdunei:

1. Egin nahi den jarduketari dagokion eskuhartze administratiboko bidea, kasu bakoitzean jarraitu beharreko izapidetzea eta legezko epeak.

2. Oro har aurkeztu behar duten dokumentazioa, bai eta aurreko egoeretan oinarritutako uziak justifikatzeko beharrezkoa den dokumentazio espezifiko edota egin nahi den jarduera edo hirigintza-jarduketa gauzatzeko eduki beharreko dokumentazioa ere.

3. Beren jarduketa ezinezkoa egiten duen betekizun teknikorik ba ote dagoen, eta aplikatzea den arau-mugartea.

4. Lizentzia lortzea edo erantzukizunpeko adierazpena egitea eskatzen duten eragiketengatik sortzen ahal diren prezio, tasa eta zergak, bai eta

ordaintzeko modua eta unea eta ordainketaren zenbatekoa ere.

5. Kexak eta erreklamazioak aurkezteko prozedura.

6. Kasua bada, eskaeraren izapidetze-egoerari buruzko informazioa elektronikoki eskuratzea.

7. Aplikatzekoa zaien araudi sektorialak ezarritako edo udalek beren udal-mugarterako araututako beste edozein gairi buruzkoa.

253. artikulua. Hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileen bateraezintasunak.

Hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileek eta haien zerbitzupeko langileek aplikatzekoak diren bateraezintasun-arloko xedapenak errespetatu beharko dituzte.

Edonola ere, bateraezintasun-arrazoi hauek aplikatuko zaizkie beren eginkizunak betetzean, udal bakoitzak bere ordenantzetan ezartzen dituenak ezertan galarazi gabe:

a) Ezin izanen dute hirigintza-jarduketaren proiektu-egile, ekoizle, zuzkitzaile, instalatzaile, hornitzaile, erosle, jabe, erabiltze, mantentzaile, aholkulari edo zuzendari izan, horiek gainean 190. eta 192. artikuluetan aurreikusitako eginkizunen bat baldin badute.

b) Ez dute azpiegiturarik, instalaziorik, antolamendu-egiturarik, langilerik, baliabiderik, ekiporik, publizitaterik edo informatika-sistematik partekatutako aurreko apartatuan aipatzen diren jarduerak gauzatzen dituzten enpresekin.

c) Ezin izanen dute hirigintza-jarduketaren gaineko egiaztatze-, ikuskatze- eta kontrol-eginkizunik bete, entitateko titularrak, bazkideak edo zuzendaritzakokideak jarduketaren titularren ahaideak –zuzeneko nahiz alboko lerrokoak izan, bigarren graduraino–, ezkontideak edo ezkontzaren antzeko bizikidetzaren harreman afektiboak dituzten pertsonak badira.

d) Ezin izanen dute ikuskatu jarduketa bat, aldez aurretik haren gaineko ziurtagiriren bat eman badute interesdunen batek eskatuta.

254. artikulua. Hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileen arau-hausteak.

1. Lege honetan araututako hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileei artikulua honetan xedatutako arau-hausteei buruzko araubidea aplikatuko zaie.

2. Hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileen arau-hauste oso astunak izanen dira uda-

lek beren ordenantzetan hala kalifikatutakoak, eta, betiere, honako hauek:

a) Jarduerak eta eginkizunak gauzatzea aldez aurretik hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileen erregistroan akreditatuta eta izena emanda egon gabe.

b) Lege honetan ezarritakoaren arabera egin ezin dituzten jarduerak eta eginkizunak gauzatzea.

c) Administrazio-organo eskudunaren ikuska-pen-jarduketak oztopatzea.

d) Lege honetan jasotako eskakizunen ikuspegitik gaitu gabe edo kualifikatu gabe dauden langile teknikarien esku uztea beren jarduera eta eginkizunak.

e) Gertaeren errealitatearekin bat ez datozen egiaztatze-akta, ziurtagiri eta txostenak jaulkitzea doloz.

f) Udalari ez jakinaraztea beren aztertze-, egiaztatze-, ikuskatze- eta kontrol-eginkizunetan hautemandako hirigintza-arloko arau-hausteak.

g) Arau-hauste astun gisa kalifikatuta egonik kalte konponezinak eragiten dituztenak edo pertsonen segurtasunerako, ondasunetarako edo ingurumenetarako hurbil-hurbileko arriskua dakartenak.

3. Hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileen arau-hauste astunak izanen dira udalek beren ordenantzetan hala kalifikatutakoak, eta, betiere, honako hauek:

a) Datu faltsuak edo okerrak dituzten egiaztatze-akta, ziurtagiri eta txostenak jaulkitzea zabarkeriaz.

b) Aztertze-, egiaztatze-, ikuskatze- eta kontrol-eginkizunak modu osatugabearen edo emaitza oker edo justifikatu gabeekin betetzea.

c) Lege honetan eskatzen den aseguru-polizaren zenbatekoa ez eguneratzea.

d) Beren eginkizunak betetzean, konfidentzialtasun-, inpartzialtasun- eta independentzia-printzipioak urratzea, bai eta aplikatzekoa zaien bateraezintasun-araubidea urratzea ere.

4. Hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileen arau-hauste arinak izanen dira udalek beren ordenantzetan hala kalifikatutakoak eta, betiere, kapitulu honetan ezarritakoaren aurkakoak diren egintza edo ez-egiteak, arau-hauste astuntzat edo oso astuntzat hartu ezin direnak.

5. Udalek beren ordenantzetan tipifikaturiko arau-hausteak oso astun, astun edo arin gisa kali-

fikatuko dira, honako irizpide hauek kontuan hartuta banaka zein batera:

a) Pertsonen segurtasunerako, ondasunentzako edo ingurumenerako dakarten kaltearen larritasuna.

b) Entitate laguntzaileen zerbitzuen kalitate-murrizketa, eta zerbitzuen erabiltzaileei ekartzen ahal dien babesgabetasuna, zabarkeria eta/edo desinformazioa.

c) Laguntzaile-jarduna gauzatzean udalari egin ahal dioten kaltea, beren jarduketan zuzentasun tekniko faltagatik eta/edo zuzentasun juridiko-prozedurazkoaren faltagatik.

d) Beren inpartzialtasun, konfidentzialtasun eta independentziaren balizko kaltea.

255. artikulua. Hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileen zehapenak.

1. Aurreko artikuluan ezarritako arau-haustek eginez gero, honako zehapen hauek ezarriko dira:

a) Arau-hauste arinak 3.000 eta 30.000 euro bitarteko isunaz zehatuko dira.

b) Arau-hauste astunak 30.001 eta 100.000 euro bitarteko isunaz zehatuko dira.

c) Arau-hauste oso astunak 100.001 eta 500.000 euro bitarteko isunaz zehatuko dira.

Eragindako kaltearen arabera, arau-hauste horiek ekartzen ahal dute, neurri osagarri gisa, entitatearen Erregistroko inskripzioa bertan behera uztea eta gehienez ere bi urteko epean berriro eskatu ezin izatea. Edonola ere, inskripzioa bertan behera uztea ezartzeko, beharrezkoa izango da bi arau-hauste oso astun edo gehiago egin izatea, eta horiek administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez deklaratu egotea.

2. Udalek beren ordenantzetan tipifikaturiko arau-hausteen kasuan, aplikatu beharreko zehapenak artikuluko honen 1. apartatuan ezarritakoari egokituko zaizkio, arau-haustearen kalifikazioaren arabera.

3. Zehapena arau-haustetzat jotako egintzen larritasunaren arabera izanen da. Hala, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan, banaka edo batera:

a) Arau-haustearen erruduntasun-maila eta asmoa.

b) Arau-haustea egiten jarraitzea edo behin eta berriro egitea.

c) Eragindako kalteen izaera.

d) Arau-haustea berriz egina den; hau da, ea urtebetean eite bereko arau-hauste bat baino gehiago egin diren, administrazio-bideko ebazpen irmo batek hala deklaratu duenean.

4. Arau-haustea egiteak inolaz ere ezin du onura ekonomikorik izan arau-haustearentzat. Hori dela-eta, administrazioak, kasuan kasuko zehapena ezartzeaz gain, egindako arau-haustearen ondorioz jasotako onura konfiskatuko du edo zenbaterako baliokidearen ordainketa eskatuko du.

5. Era berean, artikuluko honen babesean ezarritako zehapenen zenbatekoa ehuneko 50 murriztuko da borondatezko epean ordaintzen badira eta epe berean arau-haustea, bere erantzukizuna onartzeaz gain, idazki bidez adierazten badu ados dagoela ezarri zaion zehapenarekin eta espresuki uko egiten badio epe horretan administrazio-bideko inpu gnazio-ekintzak baliatzeari. Ondoren inpu gnazio-egintza baliatuz gero, aipatutako murrizketa ez da eginen.

256. artikulua. Zehapen-prozedura eta arau-hauste eta zehapenen preskripzioa.

1. Udalena izanen da hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileek kasuko udal-mugartean eginitako arau-hausteengatik zehapen-prozedurak hasi eta izapidetzeko eskumena.

Lurralde-antolamenduaren arloko departamentu eskudunaren barranean Erregistroaren kudeaketa esleituta duen organoa jakinaren gainean jarriko da zehapenak hasten direnean, eta haien ebazpenaren eta administrazio-bidean irmo bilakatu izanaren berri ere emanen zaio.

2. Lurralde-antolamenduaren arloko departamentu eskudunak jakinen balu hirigintza-arloko entitate laguntzaile batek lege honetan aurreikusitako arau-haustetzat jotzen ahal den egintzaren edo ez-egiteren bat egin duela, kasuko udalari emanen dio horren berri, bidezkoak diren legezko neurriak har ditzan eta, kasua bada, dagokion zehapen-prozedura has dezan.

3. Alkateari dagokio bere udal-mugartean hasi eta izapidetutako zehapen-prozedurak ebaztea, geroago eskuordetu edo deskontzentratu egiten ahal badira ere.

4. Lege honetan aurreikusitako zehapenak ezartzeko, zehapen-prozedura izapidetu beharko da, urriaren 1eko 39/2015 Legeari eta urriaren 1eko 40/2015 Legeari jarraikiz, bai eta, kasua bada, udal ordenantzetan ezarritakoari jarraikiz ere.

5. Kapitulu honetan ezarritako arau-hauste eta zehapenak preskribatzeko epea hiru urtekoa izanen da arau-hauste oso astunen kasuan, bi urtekoa arau-hauste astunen kasuan eta sei hilabetekoa arinen kasuan.

Zioa: hirigintza-arloko entitate pribatu laguntzaileei buruzko araudi berritzaile bat gehitzen da, lankidetzaren publiko-pribatuaren modalitate berri gisa, udal-lizentzien jaulkipenaren eta erantzukizunpeko adierazpenen izapidetzearen esparruan.

Jarduteko modu hori laguntza-tresna izanen da udalen zerbitzu teknikoentzat, bai eta haien zerbitzuak behar dituzten herritarrentzat ere, toki-entitateen ahalmen teknikoa eta operatiboa sendotuko baita, eta izapideak bizkortuko baitira, bai eta

aipaturako udal-baimenak izapidetzeko eta emateko epeak murriztu ere.

Entitate laguntzaile horiek arduratuko dira hirigintzako lizentzia-eskaeren eta erantzukizunpeko adierazpenen xede diren jarduketak egiaztatzeaz eta kontrolatzeaz, eta dagozkien egiaztapen-aktak, adostasun-ziurtagiriak eta txostenak emanen dituzte.

Edonola ere, bermatuta gelditzen da udalen autonomia, akta, ziurtagiri eta txosten horien edukia beren egitea edo arrazoituta baztertzea erabakitzen ahalko baitute. Bestalde, hirigintzako entitate horiek esku hartzeak ez ditu ez mugatzen ez eragozten udalen egiaztapen-, aztertze- eta ikuskapen-jarduketak.

2026erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko proiektuaren partidei aurkezturiko zuzenketak

GASTJEN EGOERA-ORRIARI AURKEZTURIKO ZUZENKETAK

Zuz. zkia.	Departamentua	Programa	Proiektua	Nork aurkeztua
20	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	010 Lehendakaritzaren eta Gobernu Irekiaren jardura orokorrak	010001 Programaren zuzendaritza eta zerbitzu orokorrak	PPN
GEHITZEKO		Zenbatekoa 150.000	Partida Toki entitateentzako dirulaguntza, irisgarritasunerako plan eta diagnostikoak egiteko	
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatuko da honekin: gastu-murrizketa bat				
21	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	010 Lehendakaritzaren eta Gobernu Irekiaren jardura orokorrak	010005 Gobernu Irekiaren Zerbitzua	PSN
GEHITZEKO		Zenbatekoa 15.000	Partida Transf. Barahaingo Udalari, boluntarioen ordenantza abiatzeko	
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatuko da honekin: gastu-murrizketa bat				
22	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	060 Komunikazioa eta erakunde-harremanak	060001 Komunikazio eta publizitate instituzionala	UPN
GEHITZEKO		Zenbatekoa 60.000	Partida Irisgarritasuna komunikazioan	
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatuko da honekin: gastu-murrizketa bat				
23	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	060 Komunikazioa eta erakunde-harremanak	060003 Ikus-entzunezkoen sektorea sustatzea	EH BILDU
GEHITZEKO		Zenbatekoa 50.000	Partida Hitzarmena Nafarpres Multimedia Kultur Ekararekin tokiko aldizkariak sustatzeko	
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatuko da honekin: gastu-murrizketa bat				
24	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	060 Komunikazioa eta erakunde-harremanak	060003 Ikus-entzunezkoen sektorea sustatzea	EH BILDU ETA GEROA BAI
GEHITZEKO		Zenbatekoa 23.000	Partida Hitzarmena NAPAR, ikus-entzunezkoen Ekoizpen Naparra elkararekin, ikus-entzunezkoen sektorea sendotzeko	
2. Proposatutako gastu-gehikuntza finantzatuko da honekin: gastu-murrizketa bat				

25	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	060 Komunikazioa eta erakunde-harremanak	060004	Protokolo-jarduketak	UPN
	ALDATZEKO	Zenbatekoa 500.000	Orga. 06200	Ekon. Funtzionala Partida 921102 Nafarroaren Eguna	
	2. Proposatuturiko gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat				
26	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	060 Komunikazioa eta erakunde-harremanak	060004	Protokolo-jarduketak	PPN
	ALDATZEKO	Zenbatekoa 110.000	Orga. 06200	Ekon. Funtzionala Partida 921102 Nafarroaren Eguna	
	2. Proposatuturiko gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat				
27	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080001	Genero berdintasunaren aldeko jarduketak	PPN
	ALDATZEKO	Zenbatekoa 120.000	Orga. 08200	Ekon. Funtzionala Partida 232200 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko jarduketak	
	2. Proposatuturiko gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat				
28	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080001	Genero berdintasunaren aldeko jarduketak	PPN
	ALDATZEKO	Zenbatekoa 46.850	Orga. 08200	Ekon. Funtzionala Partida 232205 Sekzio arteko berdintasun-politikak garatzea	
	2. Proposatuturiko gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat				
29	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080001	Genero berdintasunaren aldeko jarduketak	UPN
	ALDATZEKO	Zenbatekoa 30.000	Orga. 08200	Ekon. Funtzionala Partida 4301 232200 Hitzarmena IPES Fundazioarekin, Emakumearen Dokumentazio Zentroaren eta Liburutegiaren Zerbitzurako.	
	2. Proposatuturiko gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat				
30	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080001	Genero berdintasunaren aldeko jarduketak	EH BILDU ETA CONTIGO
	ALDATZEKO	Zenbatekoa 20.000	Orga. 08200	Ekon. Funtzionala Partida 4301 232200 Hitzarmena IPES Fundazioarekin, Emakumearen Dokumentazio Zentroaren eta Liburutegiaren Zerbitzurako.	
	2. Proposatuturiko gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat				

31	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080001 Genero berdintasunaren aldeko jarduketak PSN, GEROA BAI ETA CONTIGO
ALDATZEKO	Zenbatekoa	Orga. Ekon. Funtzionala Partida	
	6.000	08200 4309 232202	Hitzarmena Ijitoen Idazkaritza fundazioarekin. "Cali" programa
2. Proposatuturiko gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			
32	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080001 Genero berdintasunaren aldeko jarduketak PPN
ALDATZEKO	Zenbatekoa	Orga. Ekon. Funtzionala Partida	
	45.000	08200 4819 232202	Hitzarmena COMFIN - Nafarroako Berdintasunaren aldeko Emakumeen eta/edo Feministen Erakundeen Kontseiluarekin, emakumeen parte-hartzea sustatzeko
2. Proposatuturiko gastu-gehikuntza finantzatu da honekin: gastu-murrizketa bat			
33	0 - Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentua	080 Nafarroako Berdintasunerako Institutua	080001 Genero berdintasunaren aldeko jarduketak UPN
ALDATZEKO	Zenbatekoa	Orga. Ekon. Funtzionala Partida	
	45.000	08200 4819 232202	Hitzarmena COMFIN - Nafarroako Berdintasunaren aldeko Emakumeen eta/edo Feministen Erakundeen Kontseiluarekin, emakumeen parte-hartzea sustatzeko
